



2026KO AURREKONTUA

ZERAINGO UDALA



ZERAINGO UDALA

EKONOMI ETA FINANTZA TXOSTENA

2026eko Aurrekontua

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 6.3.e) artikuluan, jasotakoaren arabera, Zeraingo Udaletxe honetako Idazkari kontu-hartzaileak, aipatutako ekitaldirako aztertzen ari diren aurrekontuari dagokionez, egin du ondorengo

TXOSTENA

- 1.- Hemen aztertzen ari garen aurrekontuko diru-sarreraren aurrikuspenak zehazteko, oinarri hauek erabili dira:
 - Aurreko ekitaldian baliabideengatik lortutako etekina (1, 2, 3 eta 4 kapituluak).
 - Espero diren zerga unitate berriak, eta katastroko balioen gehikuntza, zerga propioei dagokienez (1 kapitulua).
 - Borondatezko zergetan espero diren zergagai kopurua (1 eta 2 kapituluak).
 - Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen tasak, tarifak eta kuotak gehitzeko hartutako erabakiak (1,2 eta 3 kapituluak).
 - Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren partaidetzan eta Itundu gabeko Zergen partaidetzan espero diren beherapenak (4 kapitulua).
 - Eskualdaketa eta diru-laguntza arruntan nahiz kapitalezkoen zenbateko ezaguna edo ustezkoa (4 eta 7 kapituluak).
 - Ekarpenetan sinaturiko hirigintzako hitzarmen eta konpromisuak.
- 2.- Aztertzen ari diren aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarriko dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependentzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisuetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.
- 3.- Aurrekontuan jasotako diru-sarrerak aurrekontuan bertan aurreikusitako gastuen kreditu guztiak ordaintzeko ematen du eta, hortaz, esan dezakegu Aurrekontuak ez duela hasierako defizitik.

Zerainean, 2026ko martxoaren 11an
Idazkari kontu-hartzailea

Julene Mendia Bengoetxea

2026KO AURREKONTU OROKORRAREN TXOSTENA

Udal honetako idazkari kontu-hartzaileak aurrekontuen araudia betez egin du honako

TXOSTENA

Alkate-presidenteak 2026eko Aurrekontu Orokorra egin du:

- Udalaren gastuaren aurrekontua: 786.175,00 €

Izan ere, aldeztu aurretik arauzko txostena bideratu behar da, lehen adierazitako agindu eta arauak ezartzen dutenez.

Aurrekontu Orokorrak hori aztertuta, agerian geratzen da:

- Aurrekontu Orokorra osatzen duen aurrekontuetako bakoitzak datu hauek jasotzen dituela: ekitaldian bertan likidatu beharreko eskubideen gutxi gorabeherako sarrerak, ordaintzeko eta konpromisoko obligazioei erantzuteko kredituak biltzen dituen gastuak, azalpen-txostena eta araudiak ezartzen dituen eranskinak.
- Aurrekontu horietan aurreikusitako sarrerak nahikoak direla aurreikusitako gastuei aurre egiteko.
- Bai Aurrekontu Orokorra eta bai bere aurrekontu guztiak osatzeko, kontuan hartu direla aurrekontu arloan indarrean dauden xedapenak.
- Aurrekontu Orokorrak udalbatzarrek onartu behar duela eta gehiengo sinplearen aldeko botoa behar duela.
- Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartu ondoren (aktan aurrekontu guztien atalkako laburpena jaso behar da), jendaurrean erakutsi behar da hamabost lanegunetan, GAO-n eta udaletxeko ediktu-taulan argitaratuta, interesatuek aztertu, eta epe horretan egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten.
- Epe horretan erreklamaziorik izanez gero, udalbatzarrean erabaki beharko dira hilabeteko epean, eta, gero, behin betiko onartuko da Aurrekontu Orokorra.

Hori da nik azaldu beharrekoa.

Zerainean, 2026eko martxoaren 11n

Idazkari kontu-hartzailea

Julene Mendia Bengoetxea

1.- AURREKONTUA KAPITULUKA

GASTUA	
	UDALA
1 KAP	238.495,00 €
2 KAP	155.090,00 €
3 KAP	3.420,00 €
4 KAP	84.380,00 €
5 KAP	9.170,00 €
6 KAP	200.700,00 €
7 KAP	49.620,00 €
9 KAP	45.300,00 €
GUZTIRA	786.175,00 €
SARRERA	
	UDALA
1 KAP	71.750,00 €
2 KAP	10.000,00 €
3 KAP	35.350,00 €
4 KAP	552.180,00 €
5 KAP	33.500,00 €
7 KAP	83.395,00 €
9 KAP	0
GUZTIRA	786.175,00 €



ZERAINGO UDALA

1. GASTU AURREKONTUA KAPITULUKA

Partida	Deskribapena	2025 gauzapena	2026
1 0000.120.153.00.01	OFIZIALA: OINARRIZKO SOLDATA	15.991,07	18.200,00 €
1 0000.120.920.00.01	A.O. FUNTZIONARIOAK: OINARRIZKO SOLDATA	31.183,67	36.000,00 €
1 0000.121.153.00.01	OFIZIALA: ORDAINKETA OSAGARRIAK	24.203,15	25.200,00 €
1 0000.121.920.00.01	A.O. FUNTZIONARIOAK: OSAGARRIAK	40.999,47	44.500,00 €
1 0000.131.153.00.01	OINARRIZKO SOLDATA: PEOIAK	9.657,41	15.200,00 €
1 0000.131.231.00.01	OINARRIZKO SOLDATA: GIZARTE LANGILEA	3.492,02	5.400,00 €
1 0000.131.414.00.01	OINARRIZKO SOLDATA: PEOIAK (Lanbide kontra)	11.461,05	8.600,00 €
1 0000.131.920.00.01	GARBITZAILEAREN SOLDATA	17.099,97	17.900,00 €
1 0000.160.153.00.01	GIZARTE SEGURANTZA: OFIZIALA ETA PEOIA	13.511,37	19.000,00 €
1 0000.160.153.00.04	OFIZIALA: ELKARKIDETZA	2.075,32	2.500,00 €
1 0000.160.231.00.01	GIZARTE LANGILEA : GIZARTE SEGURANTZA	1.028,39	3.300,00 €
1 0000.160.231.00.04	GIZARTE LANGILEA: ELKARKIDETZA	111,84	375,00 €
1 0000.160.414.00.01	GIZARTE SEGURANTZA ENPLEGU PLANA	2.341,10	3.820,00 €
1 0000.160.920.00.01	GIZARTE SEG: FUNTZIONARIOAK-GARBITZAILEA	28.734,75	35.000,00 €
1 0000.160.920.00.04	ELKARKIDETZA: FUNTZIONARIO-GARBITZAILE	3.638,08	3.000,00 €
1 0000.162.920.00.01	A.O. FUNTZIONARIOAK: PRESTAKUNTZA	0,00	500,00 €
1 0000.162.920.00.05	A.O. FUNTZIONARIOAK: SEGUROAK	1.231,39	1.200,00 €
1 KAPITULUA			239.695,00
1 0000.210.153.00.01	AZPIEGITURAKO MANTENIMENDU TA KONPONKETA	15.567,24	20.000,00 €
1 0000.210.164.00.01	HILERRIKO MANTENIMENDUA	1.867,70	3.000,00 €
1 0000.211.312.00.01	OSASUN ETXEA: MANTENIMENDUA	785,72	740,00 €
1 0000.211.333.00.01	KULTUR ETXEA: MANTENIMENDUA	1.336,12	1.150,00 €
1 0000.211.337.20.01	GAZTE TXOKOA: MANTENIMENDU GASTUAK	0,00	350,00 €
1 0000.211.432.00.01	TURISMO INSTALAZIO: MANTENIMENDU GASTUAK	10.314,59	8.000,00 €
1 0000.211.920.00.01	UDALETXEA: MANTENIMENDUA ETA KONPONKETAK	1.357,33	2.250,00 €
1 0000.220.334.00.02	HEDABIDEAK DIRULAGUNTZAK:Goierri tb,hitz	1.347,64	1.460,00 €
1 0000.220.920.00.01	UDALETXEA: BULEGO MATERIALA	552,73	250,00 €
1 0000.220.920.00.02	UDALETXEA: LIBURU, ALDIZKARIAK...	314,80	250,00 €
1 0000.220.920.00.03	UDALETXEA: MATERIAL INFORMATIKOA	1.126,65	1.700,00 €
1 0000.221.152.10.01	ETXEBIZITZA SOZIALEN ARGI INDARRA	2.309,82	2.450,00 €
1 0000.221.161.00.02	GIPUZKOAKO URAK: UR KONTSUMOA	885,30	950,00 €



ZERAINGO UDALA

Partida	Deskribapena	2025 gauzapena	2026
1 0000.221.165.00.01	ARGITERIAREN ARGINDARRA	4.248,21	7.400,00 €
1 0000.221.333.00.01	KULTUR INSTALAZIOEN ARGIA	4.824,16	7.000,00 €
1 0000.221.333.00.04	KULTUR INSTALAZIOEN GASA	2.685,73	3.200,00 €
1 0000.221.337.20.04	GAZTE TXOKOA: BEROGAILUA	1.193,17	1.600,00 €
1 0000.221.342.00.04	GASA FRONTOIA	21,38	30,00 €
1 0000.221.432.00.01	MEATEGIAK: ARGINDARRA	2.532,82	3.300,00 €
1 0000.221.920.00.01	UDALETXEA: INDAR ELEKTRIKOA	844,61	1.670,00 €
1 0000.221.920.00.04	UDALETXEA: BEROGAILUA	1.169,91	1.550,00 €
1 0000.222.920.00.01	UDALETXEA: TELEFONO KUOTAK	3.382,59	3.440,00 €
1 0000.222.920.00.02	UDALETXEA: POSTA KUOTAK	397,54	750,00 €
1 0000.222.920.00.05	UDALETXEA: INFORMATIKAKO KOSTUAK	10.307,91	12.500,00 €
1 0000.223.153.00.01	IBILGAILUAREN MANTENIMENDUA	1.117,33	2.600,00 €
1 0000.224.920.00.01	UDALETXEA: SEGUROAK	9.949,60	10.500,00 €
1 0000.226.334.00.06	JARD:EUSKARABENTURA ,SAHARA, ARANTZAZU	2.196,72	2.200,00 €
1 0000.226.337.10.02	JUBILATUEN EGUNEKO ANTOLAKUNTZA	3.425,61	2.800,00 €
1 0000.226.338.00.02	PROTOKOLO ETA ORDEZKAPEN ARRETAK	674,28	800,00 €
1 0000.226.338.00.07	SENIDETZE GASTUAK	0,00	800,00 €
1 0000.226.431.00.06	AZOKA EKOLOGIKOA	1.500,00	1.500,00 €
1 0000.227.151.00.07	HIRIGINTZA AHOLKULARITZA	17.587,35	18.000,00 €
1 0000.227.231.00.04	ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUAREN KOSTUA	4.457,93	5.000,00 €
1 0000.227.334.00.02	PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEA	0,00	440,00 €
1 0000.227.425.00.07	Gestores europeos ;Zerbitzuen kudeaketa	0,00	5.810,00 €
1 0000.227.920.00.07	UDALETXEA: LAN ETA FISKAL AHOLKULARITZA	2.151,38	3.000,00 €
1 0000.227.920.00.12	UDALETXEA: ABOK ETA IKUSKARITZA	4.646,30	8.600,00 €
1 0000.227.920.00.99	BESTELAKO GASTUAK	0,00	6.230,00 €
1 0000.227.932.00.09	DIPUTAZIOA: ZERGAREN KOMISIOA	94,34	120,00 €
1 0000.230.920.00.01	DESPLAZAMENDU GASTUAK	92,82	300,00 €
1 0000.231.912.00.01	ZINEGOTZIAK: DESPLAZAMENDUKO GASTUAK	0,00	200,00 €
2 KAPITULUA			153.890,00



ZERAINGO UDALA

Partida	Deskribapena	2025 gauzapena	2026
1 0000.332.011.00.01	MAILEGUEN INTERESAK	2.868,79	2.900,00 €
1 0000.369.011.00.01	GASTU FINANTZIEROAK	149,04	520,00 €
3 KAPITULUA		3.017,83	3.420,00
1 0000.419.922.00.01	EUDEL, UDALBILTZA KUOTAK	1.300,51	1.350,00 €
1 0000.421.162.10.01	SASIETA - HONDAKINEN BILKETA	17.673,24	18.600,00 €
1 0000.421.162.20.01	SASIETA: SOLIDOEN KUDEAKETA	1.280,73	3.300,00 €
1 0000.421.162.30.01	SASIETA: HONDAKINEN TRATAMENDUA	6.659,43	8.400,00 €
1 0000.421.335.00.01	UEMA: EKARPENAK	2.763,89	2.900,00 €
1 0000.421.414.00.01	DIRULAGUNTZA: GOIMEN	2.913,62	3.500,00 €
1 0000.421.431.00.01	DIRULAGUNTZA GOIEKI	5.093,88	4.500,00 €
1 0000.422.323.01.01	SEGURAKO UDALA: ESKOLAKO GASTUAK	4.035,70	4.300,00 €
1 0000.480.335.00.01	EUSKERA IKASTAROAK	0,00	1.500,00 €
10000.481.335.00.02	KORRIKAKO KM UDALA	-	730,00 €
1 0000.480.337.20.01	GAZTEEN SENSIBILIZAZIORAKO PROIEKTUA	0,00	1.500,00 €
1 0000.481.170.00.01	LIZTORMENDI ELKARTEA	600,00	600,00 €
1 0000.481.326.00.01	BASARTE GURASO ELKARTEA	600,00	600,00 €
1 0000.481.326.01.03	TOBERA MUSIKA ESKOLA	4.077,00	4.100,00 €
1 0000.481.334.00.02	DIRULAGUNTZA : GOIERRI TB ETA HITZA	1.865,50	2.500,00 €
1 0000.481.334.00.03	OA KULTUR ELKARTEA udako denbora librea+uharka+urtekaria	4.100,00	11.000,00 €
1 0000.481.334.00.04	SOLKIE DANTZA TALDEA	600,00	600,00 €
1 0000.481.334.00.05	HERRIKO EKINTZA BEREZIAK	200,00	400,00 €
1 0000.481.337.10.01	ANTOLAR JUBILATU ELKARTEA	600,00	600,00 €
1 0000.481.338.00.01	ZERAINGO GAZTE TALDEA-HERRIKO FESTAK	10.000,00	12.000,00 €
1 0000.481.341.00.01	OAMENDI KIROL KLUBA	600,00	600,00 €
1 0000.481.341.00.02	ADOS PILOTA ELKARTEA	600,00	600,00 €
1 0000.481.414.00.01	GOI TENTSIO LINEARIK EZ	0,00	200,00 €
4 KAPITULUA		65.563,50	84.380,00
1 0000.500.929.00.00	USTEKABEKO ETA SAILKATU GABEKO FUNTZ	0,00	9.170,00 €
5 KAPITULUA		0,00	9.170,00
1 0000.609.414.00.02	AUZOEN INBERTSIOAK	6.000,00	5.000,00 €
1 0000.622.414.00.01	GOILARRE PROGRAMA	0,00	2.000,00 €
1 0000.622.920.00.01	OSTATUKO ATERPEA	-	83.000,00 €
1 0000.625.933.00.99	OSTATU ETA MANDIOKO INBERTSIOAK	5.639,50	4.000,00 €
1 0000.626.943.00.01	ZIBERSEGURTASUNA IZFE	-	2.400,00 €



ZERAINGO UDALA

1 0000.649.432.00.01	MUSEOAK PROIEKTUA	1.270,50	24.000,00 €
1 0000.682.432.00.0	AIZPEA PROIEKTUA	-	80.300,00 €
6 KAPITULUA		65.247,80	200.700,00
1 0000.722.920.00.01	PARTZONERIA	3.520,00	3.520,00 €
1 0000.781.152.10.01	ZERAIN D FUND: ETXEB APORT	32.485,00	27.000,00 €
1 0000.781.432.00.01	ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA: LAGUNTZA OROKORRA + ITURBASQUE	10.000,00	19.100,00 €
7 KAPITULUA		46.005,00	49.620,00
1 0000.933.011.00.01	MAILEGU AMORTIZAZIOA	43.527,03	45.300,00 €
9 KAPITULUA		43.527,03	45.300,00
GUZTIRA		548.501,34	786.175,00€



ZERAINGO UDALA

2. SARRERA AURREKONTUA KAPITULUKA

Partida	Deskribapena	2025 gauzapena	2026
2 0000.112.000.00.01	O.H.Z. LANDA ONDASUNAK	15,52	1.000,00 €
2 0000.112.000.00.02	O.H.Z. HIRI ONDASUNAK	42.995,07	42.000,00 €
2 0000.113.000.00.01	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILU ZERGA	25.896,93	26.000,00 €
2 0000.114.000.00.01	H.L.B.G. GAINEKO ZERGA (PLUSBALIA)	1.481,49	2.500,00 €
2 0000.130.000.00.01	J.E.Z. ENPRESA IHARDUERAK	254,14	250,00 €
1 KAPITULUA		70.643,15	71.750,00
2 0000.282.000.00.01	ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO	27.594,04	10.000,00
2 KAPITULUA		27.594,04	10.000,00
2 0000.310.000.00.01	ZABOR ETA HIRI HONDAKINAK BILKETA	37.739,50	29.500,00 €
2 0000.310.000.00.03	UDAL HILERRIA ETA HILETA ZERBITZUAK	0,00	
2 0000.310.000.00.15	ETXEZ ETXEKO EKARPENAK	4.165,90	1.500,00 €
2 0000.321.000.00.09	LUR OKUPAZIOA: ERRIEL ZUTOIN KALBE E.A.	2.221,96	2.200,00 €
2 0000.380.000.00.01	ITXITAKO EKITALDIAK ITZULKETAK	-69.615,66	
2 0000.396.000.00.01	TELEFONICA ETA EUSKALTEL KONPENTSAZIOA	126,46	150,00 €
2 0000.399.000.00.01	BESTE HAINBAT SARRERA	14.545,98	2.000,00 €
3 KAPITULUA		-10.815,86	35.350,00
2 0000.400.000.00.01	ITUNGABEKO ZERGETAKO PARTAIDETZA	546,97	450,00 €
2 0000.405.231.00.01	ALDUNDIA ETXEZ ETXEKO ZERB	112,44	330,00 €
2 0000.410.000.00.01	EUSKO JAURLARITZAKO BAKE EPAITEGIA	1.550,00	800,00 €
2 0000.410.000.00.02	EUSKO JAURLARITZA: ONGIZATEKO DIRULAGUNT	421,00	200,00 €
2 0000.410.000.00.03	E.J. OSAKIDETZA: OSASUN ZENTRUKO DIRULAG	2.212,05	2.300,00 €
2 0000.410.000.00.04	E.J. BESTE DIRULAGUNTZAK (ITOURBASK)	9.100,00	9.100,00 €
2 0000.420.000.00.01	DIPUTAZIOA: ITUNDUTAKO TRIBUTOAK	510.198,34	537.000,00€
2 0000.420.000.00.03	FORU ALDUNDIA: EUSKERA	2.000,00	2.000,00 €
4 KAPITULUA		526.140,80	552.180,00
2 0000.553.000.00.01	OSTATU ETA MANDIOAREN ERRENTA	18.352,20	12.000,00 €
2 0000.553.000.00.02	ETXEBIZITZA SOZIALAK - ALOKAIRUA	19.242,51	19.600,00 €
2 0000.553.000.00.04	ETXEBIZITZA SOZIALAK - ENERGIA	2.134,44	1.900,00 €
5 KAPITULUA		39.729,15	33.500,00 €
2 0000.700.000.00.01	ENERGIA BERRIZTAGARRIA	0,00	22.324,00 €
2 0000.710.000.00.02	ENPLEGU PLANA	12.500,00	12.350,00 €
2 0000.710.000.00.04	EJ: AIZPEA PROIEKTUA		34.680,00 €
2 0000.720.000.00.01	MUSEOAK ALDUNDIA	4.667,00	7.020,00 €



ZERAINGO UDALA

2 0000.710.000.00.03	MUSEOAK EJ		3.500,00 €
2 0000.722.000.00.01	PARTZONERIA	5442,10	3.521,00 €
7 KAPITULUA		23.514,73	83.395,00
GUZTIRA		676.806,01	786.175,00€

3. KONPROMISOZKO KREDITUAK

GASTUA

Deskribapena	2027	2028	GUZTIRA
KIROL INSTALAKUNTZA PROIEKTUA	120.000,00 €	330.000,00 €	450.000,00 €
ERREMENTARIKO 2º FASEA OSASUN ZENTROA	90.000,00 €	170.000,00 €	260.000,00 €
AIZPEA PROIEKTUA	50.000,00 €		50.000,00 €
GUZTIRA	260.000,00 €	500.000,00 €	760.000,00 €

FINANTZAKETA

Deskribapena	2027	2028	GUZTIRA
MUSEOAK EJ %50	3.500,00 €		3.500 €
LEADER EJ	42.000,00 €		42.000,00 €
ONDARE EJ LAGUNTZA	34.680,00 €	34.680,00 €	69.360,00 €
ALDUNDIA: MUSEOAK	4.680,00 €		4.680,00 €
Kiroldegia DIRULAGUNTZA MITECO		118.574,00 €	118.574,00 €
Kiroldegia DIRULAGUNTZA DIPU	60.000,00€	60.000,00€	120.000,00 €
Kiroldegia DIRULAGUNTZA Erein EJ		190.000,00€	190.000,00 €
Kiroldegia DIRULAGUNTZA IRISGARRITASUNA IGOGAILUA EJ	22.000,00 €		22.000,00 €
2º FASEA ERREMENTARI-OSAKIDETZA?	130.000,00€	130.000,00€	260.000,00€
GUZTIRA	296.860,00 €	533.254,00 €	830.114,00€



ZERAINGO UDALA

INBERTSIOEN ERANSKINA

Eranskin honetan, 2026ean egingo diren inbertsio-gastu guztiak agertzen dira.

IZENDAPENA	EGIKARITZEA		AURREIKUSITAKO FINANTZAZIOA			
	Hasiera urtea	Am. urtea	Inb. zenbatekoa	Aur. arrunta	Kap. dirulaguntza	GUZTIRA
AUZOEN INBERTSIOAK	2026	2026	5.000,00€	5.000€		5.000,00€
GOILARRE PROGRAMA	2026	2026	2.000,00€	2.000€		2.000,00€
OSTATUKO ATERPEA	2026	2026	83.000,00€	41.000,00€	42.000,00€	83.000,00€
OSTATU ETA MANDIOKO INBERTSIOAK	2026	2026	4.000,00 €	4.000,00€		4.000,00€
ZIBERSEGURTASUNA IZFE	2026	2026	2.400,00 €	2.400,00€		2.400,00€
MUSEOAK PROIEKTUA	2026	2026	24.000,00€	5.300,00€	18.700,00€	24.000,00€
AIZPEA PROIEKTUA	2026	2027	80.300,00€	26.300,00€	104.000,00€	130.300,00€
GUZTIRA			200.700,00€	59.700,00€	164.700,00 €	250.700,00€

TRANSFERENTZIEN ERANSKINA

Transferentziek azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru Laguntzei buruzko Orokorra, bete behar dute, eta baita toki erakundeetako zerbitzuaren araudia ere. Transferentzien helburu nagusia da gizarte izaera duen jarduera bat bultzatzea edo helburu publiko bat sustatzea. Diru laguntza hauek jasoko dituzten jarduerak herri eskumenari egotzitako zerbitzu edo jarduerak osatu edo ordezkatzeko dituzte.

KONTZEPTUA	2026
EUDEL, UDALBILTZA KUOTAK	1.350,00 €
SASIETA - HONDAKINEN BILKETA	18.600,00 €
SASIETA: SOLIDOEN KUDEAKETA	3.300,00 €
SASIETA: HONDAKINEN TRATAMENDUA	8.400,00 €
UEMA: EKARPENAK	2.900,00 €
DIRULAGUNTZA: GOIMEN	3.500,00 €
DIRULAGUNTZA GOIEKI	4.500,00 €
SEGURAKO UDALA: ESKOLAKO GASTUAK	4.300,00 €
EUSKERA IKASTAROAK	1.500,00 €
KORRIKAKO KM UDALA	730,00 €
GAZTEEN SENSIBILIZAZIOAKO PROIEKTUA	1.500,00 €
LIZTORMENDI ELKARTEA	600,00 €
BASARTE GURASO ELKARTE	600,00 €
TOBERA MUSIKA ESKOLA	4.100,00 €
DIRULAGUNTZA : GOIERRI TB ETA HITZA	2.500,00 €
OA KULTUR ELKARTEA	11.000,00 €
SOLKI DANTZA TALDEA	600,00 €
HERRIKO EKINTZA BEREZIAK	400,00 €
ANTOLAR JUBILATU ELKARTEA	600,00 €



ZERAINGO UDALA

ZERAINGO GAZTE TALDEA-HERRIKO FESTAK	12.000,00 €
OAMENDI KIROL KLUBA	600,00 €
ADOS PILOTA ELKARTEA	600,00 €
GUZTIRA	84.380,00 €

ZORPETZE MAILA

	UDALA
Ekitaldiaren hasieran	
A. Kalkuluaren oinarria	786.175,00 €
B. Urtean hitzartutako karga (III. kap. eta IX. kap.) ¹	48.200
C. Zorpetzearen ehunekoa (B/A)	% 6,13

	UDALA
Ekitaldi amaierako aurreikuspena	
A. Kalkuluaren oinarria ²	786.175,00 €
B. Urtean hitzartutako karga (III. kap. eta IX. kap.) ¹	48.200
C. <u>Zorpetzearen ehunekoa (B/A)</u>	% 6,13

(1).- Zeraingo finantza karga honela osatzen da: aurreikusitako interesak gehi mailegu bakoitzaren amortizazio teorikoa; ez dira kontuan hartzen izan ditzaketen gabezia urteak.

(2).- 2026 urterako aurreikusitako sarrerak %100ean onartuz gero.

ERAKUNDEA	KONTRATUA	NAGUSIA	SALDO BIZIA	INTERESAK	AMORTIZAZIOA	ORDAINTZEKE
Sabadell	8075806804	173.000	39.345,19	1,26	22.201,44	17.143,75
Sabadell	8077614135	220.000	146.179,85	1,28	23.449,80	122.730,05
GUZTIRA		393.000	185.525,04	0,00	45.651,24	139.873,80

Zerainen, 2026ko martxoaren 11n

Idazkari- kontu-hartzailea

Julene Mendia Bengoetxea



ZERAINGO UDALA

L

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA

TITULUA: ARAU OROKORRAK ETA MAILEGUEN ARAUDIA

I. ATALA – Arau orokorrak

1. artikulua- Denbora-eremu

Aurrekontuaren onespén, kudeaketa eta likidazioa, Exekuziorako Udal Arau honek xedatzen duenari lotuko zaio, Arau honek Aurrekontuaren indarraldi bera izango duelarik.

Aipatutako Aurrekontua luzatu behar bada, Udal Arauek, era berean, indarrean jarraituko dute luzapen-aldian.

2. artikulua- Arlo funtzionala

Udal arau hau aplikatuko da orokorrean Udalaren Aurrekontua gauzatzeko orduan, eta kontuan hartuko dira zehaztuko diren berezitasunak ere.

3. artikulua- Aurrekontu orokorraren edukia

Tokiko sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, honako hauek osatuko dute:

Sarrerén aurrekontua	786.175,00 €
Gastuen aurrekontua	786.175,00 €

Aurrekontu orokorra, ondorioz, hasierako defizitik gabe ageri da, indarrean dagoen legezko araudian aurreikusitakoaren arabera.

4. artikulua – Bermeak emateko mugak

Urnietako Udalak bermatzeko ahalmena izango du 2026eko ekitaldi ekonomikoan, bere baliabideen hasierako kredituen %5eko mugarekin.

5. artikulua – Zorduntzearen mugak

Udalak epe luzerako egindako zorduntzeetatik eratorritako zorrak, edozein modutara dokumentatzen direla ere, ezin gaitutuko dute legezko muga 2026eko abenduaren 31n, eta beti kontuan hartu beharko da aurrekontuaren egonkortasuna.

2026 urtean, Udaleko sektore publikoa osatzen duten erakundeek urtebete baino gutxiagoko zorduntzeak egin ahal izango dituzte, euren diruzaintzako behin-behineko desorekak finantzatzeko. Dena dela, Udalean eragiketa horiek hitzartu ahal izateko, Udalbatzarrak onartu beharko ditu alde zuzenetik. Udalak aurrekontutik kanpo egin beharko ditu diruzaintzako eragiketa horiek eta haien amortizazioak.



ZERAINGO UDALA

II. ATALA – Kredituen araudi orokorra

6. artikulua- Kredituen lotura juridikoaren mailak

1. Aurrekontuko sarreren kontsignatzeak udal baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua dira, eta inolako mugarik gabe onar daitezke.
2. Aurrekontuan baimendutako gastuen kredituak mugatzaileak eta lotesleak dira, eta ezin hartuko da hortik gorako konpromisorik; arau hau hausten duten jardunak baliogabeak izango dira eskubide osoz; nolanahi ere, beste erantzukizun batzuk ere izan daitezke. Gastu Aurrekontuaren kredituek ondoko lotura juridikoa izango dute, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, ezartzen duenari jarraituz:

Gastuen kapitulua	Izendapena	Kredituen lotura-maila
I. kapitulua	Langileen gastuak	Kapitulua
II. kapitulua	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak	Programa-taldea eta kapitulua
III. kapitulua	Finantza-gastuak	Programa-taldea eta kapitulua
IV. kapitulua	Transferentzia arruntak	Programa-taldea eta kontzeptua
VI. kapitulua	Inbertsio errealak	Programa-taldea eta kontzeptua
VII. kapitulua	Kapital-transferentziak	Programa-taldea eta kontzeptua
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboak	Programa-taldea eta kontzeptua
IX. kapitulua	Finantza-pasiboak	Programa-taldea eta kapitulua

3. Lotura juridiko hori ezarri ondoren, hala behar duten kontu-sailetan, kreditu osagarriak ezarri ahal izango dira salbuespen modura, baldin eta hasieran aurreikusi baino sarrera gehiago edo gastu gutxiago badaude.

7. artikulua- Aurrekontuaren egitura

Aurrekontuko gastuak programakako eta ekonomiko sailkapenaren arabera ezartzen dira, eta bereizketa hauek egiten dira:

1. Sailkapen organiko bidez, nor da gastuaren arduraduna?
2. Programakako sailkapenaren bidez, zertarako gastatzen da? Hau da, zein helburu bete nahi dira Aurrekontuko gastuekin? Bilatzen diren helburuen inguruan ematen du informazioa.
3. Sailkapen ekonomikoaren bidez, zer gastatzen da? Hau da, zein da gastuaren izaera ekonomikoa (langileak, hornikuntza, inbertsioak). Gastuaren izaera jasotzen du.

Horren guztiaren arabera, honako hauek honela ulertuko dira:

- Aurrekontuko kontu-saila: gastuaren programakako sailkapena eta sailkapen ekonomikoaren batzea.
- Aurrekontuko kreditua: aurrekontuko kontu-sailetan ezarritako gastua.



ZERAINGO UDALA

Aurrekontuko kontu-sailaren eskema ondorengo hau da:

A	B	C	D	E	F	G	H
X	XX	XX	XXX	XXX	XX	XX	XX

A. Eskeman islatutako kontu-sailaren A multzoko digituak adieraziko du zein kontu-sail mota den, eta ondorengo balio hauek izango ditu:

1. Urteko gastu eragiketak eta erantsitako kredituak.
2. Urteko sarrera eragiketak.
3. Gastuen hondarrak, aurreko ataletan definitu bezala.
4. Sarreraren hondarrak.
5. Etorkizuneko ekitaldietako gastu eragiketak.
6. Kontu-sail loteslea.

B. B multzoko digituek, gastua edo sarrera zein departamentutakoa den, haren kodea jasotzen dute.

C. C multzoko digituek departamentutakako sailkapena gehiago zehazten dute, eta gastua edo sarrera zein sailetakoa den adierazten dute.

D. Hiru digitu hauek gastuen sailkapen ekonomikorako eta sarreraren multzorako gordetzen dira. Hala, lehen digituak atala (sarrerena eta gastuena) islatuko du. Lehen eta bigarren digituek batera artikulua (sarrerena eta gastuena) adierazten dute. Hiru digituek batera gastuen kontzeptu ekonomikoa adierazten dute edo, kasua bada, sarreraren multzoarena.

E. Hiru digitu hauek gastuen programakako sailkapenerako gordetzen dira; lehenak gastu arloa adierazten du. Gainerako bi digituak programakako sailkapena gehiago zehazteko erabiltzen dira. Sarreraren kontu-sailetan, berriz, berezitasun ekonomiko osagarriak dira.

F. Bi digitu hauek programakako sailkapena gehiago zehazteko erabiltzen dira.

G. Bi digitu hauek sailkapen ekonomikoa gehiago zehazteko erabiltzen dira.

H. Azken bi digituek kontu-saila noizkoa den adierazten dute. Aurtengo kontu-sailak badira, "00" balioa hartzen dute. Gainerako kasuetan, hau da, hondarren kontu-sailak edo etorkizuneko kontu-sailak badira, hondarraren jatorrizko urtea edota gastu konpromisoa gauzatu ondoko urtea zein den adierazten dute. Kredituren bat erantsi bazaio, nahiz eta kontu-saila urte horretan bertan gauzatu, jatorrizko urtearen digituak izango ditu.

8. artikulua- Kreditu orokorrak

1. Aurrekontuko gastuetan ordainketa orokorreko kredituak sartu ahal izango dira, beste ordainketa-kreditu batzuen zuzkidurak nahikoak ez badira edota zuzkidurarik ez duten beste behar batzuei aurre egiteko. Zabal daitezkeen kredituak finantzatzeko ere erabili ahal izango dira.
2. Kreditu orokorra ez da izango Toki Erakundeko Administrazioaren aurrekontuko ordainketa-kreditu guztiak baino %5 handiagoa.

III. ATALA- Kredituen aldaketak

9. artikulua- Kredituen aldaketei buruz

Aurrekontuetako kredituak aldatu ahal izango dira abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak ezartzen duenari jarraituz, eta baita Aurrekontua Gauzatzeko Arau honek ezartzen dituen zehaztapenei jarraituz ere.

Kredituak aldatzeko proposamenetan, zein programa eragiten dion adierazi beharko da, eta egin beharreko ekintzetan eta lortu beharreko helburuetan zein eragin duen ere azaldu beharko da; bestalde, adierazlearen zenbatekoa eta aldizkakotasuna ere eguneratu beharko dira.

Lehendakari izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada.



ZERAINGO UDALA

Edozein kreditu aldatzeko, proposamen arrazoitua eskatuko da, eta kontuan hartuko da aldaketa horrek nola eragin dezakeen aurrekontua onartzean finkatu ziren helburuak lortzeko.

Kredituak aldatzeko espediente guztien berri emango du Kontu-hartze sailak.

Udalbatzarrak onartutako kreditu aldaketak ez dira gauzatuko, harik eta behin betiko onartu ostean jendaurrean erakusten ez diren arte.

Gastu-sarreraren aldaketak bitarikoak izan daitezke:

- a) Gastu-sarrera horien zenbateko osoa aldatzen ez dutenak eta onartu bezalaxe uzten dutenak. Kreditu-transferentziak dira, eta abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak erregulatzen ditu 29., 30. eta 36. artikuluetan.
- b) Gastu-sarreraren zenbateko osoa aldatzen dutenak. Hauek dira:
 - Kredituak egokitzea
 - Kredituak gehitzea
 - Baliogabetzeak
 - Kreditu gehigarriak
 - Hitzarmenetakoak

Aldaketa horiek abenduaren 19ko 21/2003ko Foru Arauaren 31, 32, 33, 34 eta 35. artikuluetan oinarritzen dira.

II. TITULUA: GASTUENA

I. ATALA – Arau orokorrak

10. artikulua.- Urteko aurrekontua

1. Gastuetako kredituen kontura, ekitaldian egindako gastuetatik eratorritako obligazioak soilik hartu ahal izango dira.
2. Salbuespen gisa, obligazio hauek aplikatuko zaizkie aurrekontuko kredituei, horiek onartzen diren unean:
 - a) Langileen atzerapenak likidatzetik sortutakoak. Hauek onartzea alkateari dagokio.
 - b) Aurreko urteetan behar bezala hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritakoak; kasu honetan, 16. artikulua jaso bezala onartuko da obligazio hori.
 - c) Aurreko urteetatik datozenak, aurrez onartu gabeko gastuen ondorio; kasu honetan, udalbatzarrak onartu beharko ditu.

12. artikulua.- Gastua kudeatzeko faseak

1. Udalaren gastu-aurrekontua fase hauetan kudeatuko da:
2. Gastuaren baimena (B)
3. Gastuaren prestasuna (P)
4. Obligazioaren aitortza (O).
5. Ordainketa agintzea. (ME)
6. Ordainketa gauzatzea.

Nolanahi ere, espresuki hala ezartzen den kasuetan, gastu-aurrekontua kudeatzeko administrazio ekintza berberak fase horietako bat baino gehiago hartu ahal izango du, eta fase horiek biltzen dituen administrazio ekintza horrek faseak bereizita egingo balira bezalako ondorioak izango ditu.

Egoera hauek gerta daitezke:

- Baimena-prestasuna



ZERAINGO UDALA

- Baimena-prestasuna-obligazioaren aitortza

Kontabilitate agiriak arlo kudeatzailean hasiko dira, eta ekintza horiek informatikoki gorde ahal izango dira; hala ere, Kontu-hartze sailak baieztatu gabe ez da benetako kontabilitate ondorioz izango.

Hurrengo atalean arautzen dira administrazio prozedurak eta gastuak onartzeko eskumena duten organoak.

II. ATALA – Aurrekontuaren kudeaketa

12. artikulua.- Kreditua atxikitzea

Gastuaren zenbatekoa edo espedientea prestatzea zaila dela ikusi eta komenigarria izanez gero, arlo kudeatzaileko zinegotziak eska dezake aurrekontuko kontu-sail baten kreditua atxikitzea.

Kontu-hartze sailean eskaera jaso ondoren, saldoa nahikoa den egiaztatuko da, kredituaren lotura juridikoan ezarria dagoen neurrian.

Kontu-hartze sailak kreditua badagoela ziurtatzen duen agiria egin ondoren, Ogasun zinegotziak erreserbatzeko baimena emango du.

13. artikulua.- Gastuak baimentzea

Baimentzea da gastuak egiteko erabakia hartzea, izan kopuru zehatzekoak edo gutxi gorabeherakoak, eta horretarako aurrekontu kredituaren zati bat edo guztia gordetzea.

1. Udalbatzarraren eskumena da gastuak baimentzea, sarrera arrunten %10etik gorakoak direnean.
2. Alkatearen eskumena da sarrera arrunten %10etik beherako gastuak baimentzea.

14. artikulua.- Gastuak erabiltzea

Erabiltzea da aurrez kopuru zehatz batekin baimendutako gastuak egiteko erabakia hartzea.

1. Gastuen erabilera onartzeko eskumena izango dute aurreko artikuluan adierazitako organo berberak.

15. artikulua.- Obligazioa aitortzea

Obligazioa aitortzea da erakundearen kontrako gastu kreditu galdagarri bat badagoela adieraztea, aurrez onartu eta hitz emandako kreditu batetik eratorritakoa.

Zerbitzu bat ematea edo hornikuntza edo obra bat egitea ez da nahikoa erakundeak horren zorduna dela aitortu behar izateko, baldin eta ez baditu eskatu aginte edo organo eskudunak. Ez bada hartarako baimenik eman, gerta liteke hornitzaileari edo egileari materialak itzuli edo kalteak ordaindu behar izatea.

Alkateak du obligazioak aitortzeko eskumena, betiere lege hartutako gastu-konpromisoen ondorio badira.

Gastuaren izaeragatik baimendu, erabili eta obligazioa aitortzeko aldiak batera gertatzen direnean, metatu ahal izango dira ADO kontabilitateko agiria izapidetuz.

Hirugarrenek egindako fakturak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, eta gutxienez, ondorengo datu hauek eduki beharko dituzte:

- Udalaren identifikazio argia (izena, IFK)
- Hirugarrenaren identifikazioa.



ZERAINGO UDALA

- Faktura zenbakia.
- Hornikuntzaren edo zerbitzuaren behar besteko deskribapena.
- Agindua zein kudeatzailek eman zuen.
- Kudeatzailearen sinadura
- Obra ziurtagiriak justifikatu egin beharko dira, oinarri dituzten balorazioen bidez, eta obraren aurrekontuak duen egitura berbera izango dute.

Fakturak ontzat eman ondoren, Funtzen Kontu-hartze sailera eramango dira, fiskalizatu eta kontrolatzeko. Eragozpenik izanez gero, dagokion sailera itzuliko dira, antzemandako akatsak konpontzeko, hori egiterik bada; eta bestela, hornitzaileari bueltatzeko, beharrezko oharrak egin ondoren.

Ontzat eman eta fiskalizatu ondoren, organo eskudunari igorriko zaizkio, honek onar ditzan. Obligazio aitortzak oro har fakturen zerrenda batean dokumentatuko dira.

16. artikulua.- Ordainketa agintzea.

Ekintza honen bidez, ordainketa agintzaileak, onartu eta likidatutako obligazioan oinarrituz, ordaintzeko agindua ematen du.

1. Alkateak du Udalaren ordainketak agintzeko eskumena, nahiz eta delegatu ahal izango duen araudiari jarraituz.
2. Oro har, Diruzaintzak egingo duen ordaintzeko aginduen zerrendari jarraituko zaio, funtsak erabiltzeko planaren arabera eta langileen gastuek eta aurreko urteetako obligazioek lehentasuna dutela kontuan hartuta.
3. Ordainketaren izaerak edo presak behar badu, banaka agindu daiteke ordainketa hori egitea.

II. ATALA – Administrazio prozedura

17. artikulua.- Baimentzea-erabiltzea

1. Kontratazio espedientea behar duten gastuetan, lehiaketa edo enkante bidez egingo direnetan, espedientearen hasieran "A" dokumentua izapidetuko da, proiektuaren kostu berarekin edo zerbitzu teknikoek egindako aurrekontuarekin.
2. Esleipenduna zein den eta gastua zehazki zenbatekoa den jakin ondoren, "D" dokumentua izapidetuko da.
3. Hurrenez hurren, eta obra, zerbitzua o horniketa egiten den neurrian, "O" dokumentua izapidetuko da.
4. Talde honetakoak dira ondoren zehazten direnak:
 - Inbertsio edo mantentze lanak egitea.
 - Ibilgetua eskuratzea.
 - Beste batzuk, beren izaeragatik baimentze eta erabilera ekintzetatik banatu behar direnak.

18. artikulua.- Baimentzea eta erabiltzea

1. Udalbatzak lege hartutako gastu konpromisoak direnean eta egin beharreko zerbitzu, obra edo horniketaren kopuru zehatza jakina denean, "AD" dokumentuak izapidetuko dira, ekitaldian egin daitekeen gastuarekin.

2. Talde honetakoak dira ondoren zehazten direnak:

- Alokairuak.
- Aurreranzko tratua duten kontratuak (garbiketa, zabor bilketa, mantentzea, argizatzea eta abar.)
- Hitzartutako maileguen amortizazio kuotak.
- Zuzeneko kontratazioa izan dezaketen zerbitzu edo eskuratzeak.



ZERAINGO UDALA

19. artikulua.- Baimentzea-erabiltzea-obligazioa

1. Ondasun zehatzak eskuratuz gero eta prozedurari atxikirik ez dauden beste gastu batzuk kontratatuz gero, non obligazioa berehala galdatu daitekeen, "ADO" dokumentua izapidetu beharko da.

2. Talde honetakoak dira:

- Ohiko lanen gastuak.
- Dietak, lokomozio gastuak, kalte-ordainak, udalbatzakoen asistentziak eta ordainsariak eta aurrekontuarekin batera onartutako lanpostuen zerrendetan agertzen diren langile guztienak.
- 221 eta 222 kontzeptuen hornidura, iragarkiak eta harpidetzak, estatuaren zerbitzuen kargak eta estatuko eta Erkidegoko Legediak ezartzen dituenak.
- Alokairuak, kontratatutako aseguruen primak eta atentzio finkoak oro har, behar bezala onartutako kontratu baten ondorioz egin beharreko ordainketak badira.
- Langileen hileroko nominak, Gizarte Segurantzaren kuotak, Elkarkidetza, botikak eta langileen asistentziarako bestelako laguntzak.
- Atzerapen interesak eta beste finantza gastu batzuk.
- Langileei eman dakizkiekeen aurrerapenak.
- Oro har, ondasun zehatzak eskuratzea eta kontratazio prozesurik behar ez duten bestelako gastuak.

IV. ATALA – Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoaren aurrerakinak

20. artikulua.- Justifikatu beharreko ordainketak

Ordaintzeko agindu guztien justifikazio dokumentalaren oinarriaren salbuespen gisa, betiere ezin egin badaiteke hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoaren aurrerakinaren bidez, *justifikatu beharreko* aginduak eman ahal izango dira. Gehienez, justifikatu beharreko 800,00 euroko kopuruak entregatu ahalko zaizkie Korporazioko kargudun hautapenezkoei eta Mantenuko Arduradunari.

1. Justifikatu beharreko ordainketa aginduak beharrezko erosketa edo zerbitzuetarako soilik emango dira, betiere ezin badira ordaindu kutxa finkoaren aurrekinen kargura eta ezin bada ziurtagiririk eskuratu agindua eman aurretik.

2. Hiru hilabeteko epean, hartzaileek ordainketaren ziurtagiria ekarri beharko dute kontu-hartze zerbitzura, eta inbertitu ez duten zenbatekoa itzuli beharko dute.

3. Funtsak zaintzeaz hartzailea arduratuko da.

4. Justifikatu behar diren ordainketa aginduak eman ahal izateko, beharrezkoa izango da hartzaileak justifikatu gabeko funtsik ez izatea.

21. artikulua.- Kutxa finkoaren aurrerakinak

Aldizkakoak diren edo errepikatzen diren premiei erantzuteko zuritu beharreko funtsak igorriko dira. Fondo horiek kutxa finkoaren aurrerakinak izango dira. Fondo hauen hartzaileek aurrerakina eratu zen aurrekontu-ekitaldian zehar hartutako kopuruaren aplikazioa frogatu beharko dute.

Alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak ondorengo gastu hauetaz arduratzeko gaitutakoei funtsak ematea baimendu ahal izango du:

- Materiala konpontzeko eta kontserbatzeko lanak.
- Bulegoko material inbentariaezin arrunta.
- Protokolozko eta ordezkartzako gastuak.



ZERAINGO UDALA

- Dietak eta lokomozio eta garraio gastuak.

- Ongintzako eta bertaratzeko gastuak.

Baimen horiek, nolanahi ere, ezin izango dira aplikatzen zaizkion aurrekontu-aplikazioaren kredituaren % 25 baino handiagoak izan, eta funts horien kontura ordaindutako gastu bakoitza ezin izango da 1.000 € baino gehiagokoa izan. Baimenaren barruan, nolanahi ere, hiru hilean behin Ogasun eta Ekonomia Sailari aurrerakin horien kontu emateko eginbeharra egongo da, bai eta eragiketa horiek kontabilizatzeko arauak ere. Ez da fondo-aurrerakin berririk emango harik eta aurrekoak erabat justifikatuta egon arte.

Aurretiazko tramitazio bidez ezin izango dira diru-laguntza izendunak egin.

22. artikulua.- Dieta, lokomozio eta bidaien kalte-ordainak

Presidenteak eta gainerako hautetsiek kalte-ordain hauek jasotzeko eskubidea izango dute, udalerritik kanpoko bidaia ofizialetan:

a) Lokomozio gastuak:

- Norberaren ibilgailua erabiliz gero: 0,29 euro kilometroko, gehi bidesariak eta aparkalekuetakoak; betiere ziurtagiria aurkeztu ondoren.
- Bestela: gastuaren zenbatekoa, ziurtagiria aurkezten bada.

b) Mantenu eta egonaldi gastuak:

Gaua ohiko etxebizitzatik kanpo pasatuz gero: gastuaren zenbatekoa, ziurtagiria aurkezten bada.

Funtzionarioek eta kontratatutako langileek eskubidea izango dute Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzkoak, jasotzen dituen kalte-ordainak jasotzeko. Halaber, Dekretu horren xedapen osagarriak ere aplikatuko dira, eta baita kalte-ordainen zenbatekoa aldika berrikusteko emandako dekretuak ere.

Nolanahi ere, egindako bidaiei buruzko txostena idatzi beharko dute hala hautetsi kargudunek nola gainerako langileek; bertan, datu hauek agertu beharko dute: noiz eta nora joan diren, zein ordutan irten eta iritsi diren, eta zein kudeaketa egin duten. Dokumentu horretan, ezarritako tarifak kontuan hartuz zenbateko kalte-ordaina dagokien adierazi beharko dute.

23. artikulua.- Ikastaroetara joatea

Ikastaroetako parte-hartzea arau hauen arabera erregulatuko da:

a) Idazkariak proposatuko du baimena, eta arduradun politikoak eman beharko du ontzat eta Idazkaritzara bideratuko da. Idazkaritzak ekintzak kudeatuko ditu, besteak beste, honako hau adierazi beharko du eskaerak:

- Ikastaroan parte hartu behar duenaren nortasun-datuak: izen-abizenak, lanpostua eta abar.
- Ikastaroaren helburua, tokia eta iraupena.
- Orduetgia
- Matrikularen kuota, eta dieta eta lokomozioko gastuak.

b) Kontuhartzaitzara bideratuko da proposamena eta Diruzaintzak, proposamen horren arabera, funtsa ordainduko du; *justifikatu beharrekoa* izango da.



ZERAINGO UDALA

24. artikulua.- Kredituen gehitze aurreratua

Hurrengo urteko aurrekontuari gehitu ahal izango zaizkio, kitapena onartu aurretik, aurrekontuko kredituak edo haien aldaketak, abenduaren 31n obligazioa aitortzeko badute eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.1. artikuluan jasotzen duen egoeretako batean izatea.

- Dagokion zerbitzuburuak egindako txostenaren bidez justifikatzea beharrezkoa dela kreditua lehenago gehitzea.
- Kreditu hori aldi berean aurten gehitu ez izana, non eta ez diren sarrera finalistekin finantzatutako kapital-eragiketak.

Nolanahi ere, ekainaren 30a baino lehenago egin beharko da gehitze aurreratua.

Lehenago gehitutako kredituak hasierako aurrekontuan sartu izan balira bezala hartuko dira.

Gehitze aurreratua egiteko, finantza-bitarteko nahikorik badagoen ikusi beharko da, eta horren arabera jokatu. Horiek horrela, finantza-iturri gisa hartuko dira 96/1992 Foru Dekretuak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Araudia onartzen duenak, 38.5. eta 38.6. artikuluetan jasotakoak.

Kredituen gehitze aurreraturako baimena presidenteak eman beharko du, Funtzen idazkari kontu-hartzaileak txostena egin ondoren; txosten horretan, besteak beste, nahiko finantzabide badagoela adierazi beharko da.

Kredituak behin betiko gehitu aurretik, aurreko artikuluko horiek arautzen dituzten behin-behineko gehikuntzen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen gehitze aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatutakoan onartuko da behin betiko.

25. artikulua.- Fakturen erregistroa

Azaroaren 26ko Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38. artikulua kontuan izanik, fakturentzako erregistro osagarri modura ezartzen da fakturen kontabilitate erregistroa.

V ATALA - Barne kontrola eta fiskalizazioa

26. artikulua- Barne kontrolaren lotura motak

1. Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren barne-kontrola foru-araudiaren eta aplikatzekoa den gainerako legediaren arabera egingo da aipatutako jarduketako finantzario osoaren gainean eta hori osatzen duten eduki ekonomikoko ekintzen gainean, honako modalitate hauetan:
 - a) Eginkizun idazkari kontu-hartzailea.
 - b) Finantza eta kontu-ikuskaritza kontrola.
 - c) Eraginkortasun-kontrola.
2. Eginkizun idazkari kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerek eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.



ZERAINGO UDALA

3. Kontrol finantzarioaren xedea da zerbitzuen egintza ekonomikoa eta finantzarioa antolamendu juridikora zein finantza-kudeaketa egokiaren printzipio nagusietara egokitzen dela ziurtatzea betiere begiratuta baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak nahiz aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioek gidatuta daudela tokiko baliabide publikoen erabilpenari dagokionez
4. Erabaki politikoei buruzko iritzirik eman gabe, eraginkortasun-kontrolak jardueren egokitzapen ekonomikoa aztertuko du, programatutako ekintzen eta helburuen ikuspuntutik zein prozesuari atxikitako kostuari dagokion ikuspuntutik, bai eta foru araudiak zein horren inguruan aplika daitekeen legeriak ezarritako alderdiak ere.
5. Eginkizun idazkari kontu-hartzaileaz arduratzen diren funtzionarioek eta finantza- zein eraginkortasun-kontrola gauzatzeko izendatutakoek independentzia osoz gauzatuko dute euren funtzioa, eta beharrezkotzat jotako behar bezain beste aurrekari eskuratu, beharrezkotzat iruditzen zaizkien liburuen, kontuen eta dokumentuen azterketa eta egiaztapena egin, kontaketak eta zenbaketak egiaztatu eta, ikuskatu beharreko ekintzaren, dokumentuaren edo txostenaren izaerak eskatzen duenean, beharrezkotzat dituzten txosten teknikoak eta aholkularitzak eskatu ahal izango dituzte.

27. artikulua.- Eginkizun idazkari kontu-hartzailearen jarduera gastuen eremuan, fiskalizazio mugatuaren bidez

Aurrekontuaren araudiak aurreikusitakoaren arabera, Udaleko osoko bilkurak aurretiazko fiskalizazioa onartzen eta ezartzen du, artikulua honetan landutako alderdietara mugatuta, eta ez zaio kalterik egingo aipatutako obligazioen edo gastuen fiskalizazio mugatua eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin adierazgarriaren gaineko ondoko fiskalizazio osoaren bidezko egiaztapenari.

1. Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-hartzailetza jarraian adierazitako oinarrizko baldintza hauek egiaztatzen mugatuko dira:
Lotura mailan aurrekontu-kreditua izatea, eta aurrekontua egokia izatea. Alde horretatik, kreditua egokitzen joko da, udal-diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzen dituenean, horretarako legalki ezarritako baldintzak beteta:
 - a) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.
 - b) Gastua finantzatzeko baliabideak eraginkorki eskuragarri egotea.
 - c) Obligazioa edo gastua toki-erakundeak gauza ditzakeen edo, bereak ez diren eskumenetan, gauzatzen jarraitu ditzakeen eskumenen barnean egotea, betiere, aurretik, indarreko legeriak ezarritako baldintzak beteta.
 - d) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna edo finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.
 - e) Obligazioari edo gastuari sostengua ematen dioten dokumentuak egokiak izatea eta beharrezko sinadurak eta baldintzak izatea. Alde horretatik, gastuaren obligazioa aitortzeko dokumentazioak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.
 - f) Konpromisoetako kredituen eta hainbat urtetarako gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuetarako Foru Araudiak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea
 - g) Obligazioa edo gastua bere gain hartzen duen aurrekontu-aplikazioak iragankortasun arauak betetzea, bai eta espezialitate- eta espezifikazio-arauak ere, gastuaren izaera funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera, bai eta izaera organikoaren arabera ere, kasua balitz.
 - h) Kudeaketa-prozesuan duten garrantzia dela eta, Udaleko osoko bilkurak erabakitako bestelako alderdiak.
2. Udal kontu-hartzailetza orokorrak, eskura dituen baliabideen arabera, aurreko atalean aurreikusitako alderdiez gain, kontratuetatik, hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik eta baita langileen gastuetatik ere ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzen fiskalizazio mugatuan, ondorengo alderdi osagarri hauek egiaztatu ahal izango ditu:

Kontratatuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- a) Agiriak, hautaketa-irizpideak eta horien balorazioak zein kontratazio-prozedurak Sektore Publikoko kontratuen arloko indarreko legeriara egokitzea.
- b) Aldaketa posibleen legearen arabera, kontratuen beharrezko aurreikuspena.
- c) Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagoren gain gauzatu behar diren kontratuetan, gastuaren udal azpisailaren arduradunek kontratuaren beharrezko denbora- eta finantza-plangintza gauzatu izana.
- d) Lanetan, hasi aurreko zuinketa-akta, eta azken ziurtagiriaren azken harreraren eta onarpenaren akta.



ZERAINGO UDALA

Euren gauzapena ekitaldi batera baino gehiagora luzatuz gero, agiriek gastuan inplikaturako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden aplikazioak eta zenbatekoak zehaztea. Hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- a) Diru-laguntza izendunak xedea eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu-aplikazioa izatea.
- b) Egin beharreko hitzarmenaren xedea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuen barnean ez egotea.
- c) Hirugarrenengoaren akreditazioa edo onuradunak zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean dagoenaren egiaztapena.
- d) Onuradunak funtsen helburua justifikatzea, hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen legeriaren arabera. Bai eta justifikazioaren akreditazioari buruzko diru-laguntzaren teknikari arduradunaren txostenaren konstantzia ere espedienteetan.
- e) Funtsezkotzat jotzen diren bestelako alderdiak, diru-laguntzen arloko indarreko legeriaren arabera.

Langileen gastuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- a) Indarreko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainerako legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea.
 - b) Proposatutako gasturako legez eska daitezkeen baldintzak betetzen direla frogatzen duen langileen sail arduradunaren txostena egotea.
 - c) Finkoak ez diren edo aldizkako epemuga ez duten ordainsariak aitortzen dituzten gertakarien kasuan (haborokinak, aparteko orduak, kalte-ordaina...), hori ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortzen duen erakunde eskudunak igorritako ebazpenaren edo akordioaren txostenera eranstea.
 - d) Funtsezkotzat jotzen diren bestelako alderdiak, indarreko legeriaren arabera.
3. Erakunde idazkari kontu-hartzaileak egokitzen jotako behaketa osagarriak egin ahal izango ditu, horiek dagozkien espedienteen izapidetzean inolako etendura-eraginik izan gabe. Gainera, behaketa osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun planteamendua egin beharko.
 4. Ez dira aldeztu aurretik fiskalizatu beharko:
 - a) Material inbentariaezinaren gastuak.
 - b) Kontratu txikiak.
 - c) Aldizkako gastuak eta jarraiko traktuko gainerako gastuak, behin fiskalizatuta haiei dagokien egintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketen hasierako epeko gastua.
 5. Kontrol finantzarioko urteko planean zehaztuko den bezala, aurretiazko kontrol mugatuak ondorengo fiskalizazio osoa ekarriko du berekin, ikuskaritza- eta laginketa-teknikak erabiliz; horren emaitza barne-kontrolko urteko txostenean islatuko da, atal independente gisa.
 6. Kontrol finantzarioko urteko planean zehaztuko den moduan, aurretiazko kontrol mugatu honek beste ikuskaritza oso bat ekarriko du gerora, ikuskaritza- eta laginketa-teknikak erabiliz; horren emaitza barne-kontrolko urteko txostenean azalduko da atal independente gisa.

28. artikulua.- Eginkizun idazkari kontu-hartzailearen jardura diru-sarreraren eremuan, fiskalizazio mugatuaren bidez

Aurrekontu-araudian aurreikusitakoaren babespean, Udaleko osoko bilkurak Diru-sarreraren aurretiazko fiskalizazio mugatua onartzen eta ezartzen du. Horrela, diru-sarreraren arloko aurretiazko fiskalizazioa kontularitzako arrazoi-hartzeagatik ordezkatzeko da.



ZERAINGO UDALA

LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS AÑO

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUAK/

PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

Zk. / N.º de ord.	Izena / Denomina.	Postu zk. / N.º puesto	Hornitzeko modua / Forma de provisión	Destino maila Udalhitz. / Nive. Compl. Desti. Decr. 207/90	Destino maila 207/90 Dkr. / Nivel Compl. Desti. Decr. 207/90	Berariazko osagarria / Comple. especifico	Dedika. (%) / Dedic. (%)	Menpekotasuna / Dependencia	Taldea/ Grupo	Eskala / Escala	Hizkuntza eska. / Perfil ling.	Derrigorrezko data / Fecha. percep.	Egoera / Situaci.	Titulazioa / Titulación	Oharra / Observación
1	Idazkari-kontuhartzaile / Secretar. Interventor	1	Oposiz. lehiak / Concurso oposici.		24	15.919,26	50	Idazkaritza / Secretaría	A-1/A-2	Gaikuntza nazionala / Hab. Nacion.	4	00/12/29 - 29/12/00	P	Gradua / Grado Lizentzi. / Licenci Baliokideak / Equiva- len.	Geh. Tald. Osag. / Más comple. Agrupaci.
2	Administraria / Administrativo	1	Oposiz. lehiak / Concurso oposici.	13	18	18.249,28	100	Idazkaritza / Secretaría	C-1	Administracio Orokorreko administra / Adminis. Admón. General	3	99/12/31 - 31/12/99	P	Batxilergoa edo baliokidea / Bachiller o equivalente	
3	Zeregin Anizkoitzetako ofiziala / Oficial Cometidos varios	1	Oposiz. lehiak / Concurso oposici.	11	14	16.614,50	100		C-2	Administracio Berezia / Admón. Especial	2	04/06/16- 16/06/04	P	F.P. 1 edo baliokidea / F.P.1 o similar	B1 *
4	Gizarte Langilea / Trabajadora social	1	Lehiaketa / Concurso	17	20	3.037,20	20	Zerbitzu sozialak / Servicios sociales	A-2	Administracio Berezia / Admón. Especial	3	18/05/22 - 22/05/18	P	Gizarte Langile Gradua / Diplomatura / Grado / Diplomatura en Trabajo Social	

*Beharrezkoa B1 gidabaimena / Obligatorio permiso de conducir B1

LAN KONTRATATUPEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

Zk. / N. º de ord.	Izena / Denomin a.	Post u zk. / N.º pues to	Hornitze ko modua / Forma de provisió n	Destin o maila Udalhi tz. / Nive. Compl. Destin o Udalhi tz	Desti no maila 207/9 0 Dkr. / Nivel Com pl. Desti Decr. 207/9 0	Berariaz ko osagarri a / Comple. Específi co	Dedi ka (%) / Dedi c (%)	Menpekotas una / Dependenci a	Talde a / Grup o	Eskala / Escala	Hizkunt za eska./ Perfil ling.	Derrigorre zko data / Fecha. percep.	Egoe ra / Situa ci.	Titulazi oa / Titulaci ón	Oharra / Observac ión
5	Peoia	1	Lehiaket a / Concurs o	8	11	8.152,39	50		AGP/Z B*	Administra cio Berezia / Admón. Especial	1	18/05/22 - 22/05/18	P	Eskola ziurta./ Certif. escolar	B1*
6	Garbitzail ea/ Limpiador	1	Lehiaket a / Concurs o	6	12	8.208,66	50		AGP/Z B*	Administra cio Berezia / Admón. Especial			V	Eskola ziurta./ Certif. escolar	Iraungitze ke A extinguir

*Beharrezkoa B1 gidabaimena / Obligatorio permiso de conducir B1